



GIZARTE SEGURANTZAKO AFILIAZIOA

Afiliazioak nabarmen egin du gora maiatzean


Gizarte Segurantzako afiliazioa 1.042.680 langi-letara iritsi zen maiatzean Euskadin, urte arteko %1,3ko hazkundea izanik. Maila hori 2006tik eskuragarri dagoen serie historiko osoaren maximo berri bat da, eta urtearen hasiera ona berresten du, urtarriletik maiatzera bitarteko aldi-an %1,1eko batez besteko hazkundearekin 2025eko tarte berarekin alderatuta. Kopuru absolututan, aurreko urteko maiatzean baino 13.531 afiliatu gehiago izan ziren.

Sexuaren arabera, bilakaera orekatua izan da: 503.137 emakume eta 539.541 gizon afiliatu baitira, urte arteko tasak %1,3 eta %1,4 izanik hurrenez hurren. Oro har, emaitza horiek erakusten dute Euskadiko lan-merkatuak etengabe egin duela aurrera, eta 2025. urtearen hasieran ikusitako dinamika onari eusteaz gain, gainditu egiten duela, afiliazio-errekor berria lortuz eta Euskadiko enpleguaren indarra agerian utziz.

GIZARTE SEGURANTZAKO AFILIAZIOA GUZTIRA


Urte arteko aldakuntza tasa

MAIATZEKO AFILIAZIOA
%1,3




GIZARTE SEGURANTZAN AFILIATUTAKO EMAKUMEAK

Urte arteko aldakuntza tasa




GIZARTE SEGURANTZAN AFILIATUTAKO GIZONAK

Urte arteko aldakuntza tasa




AFILIAZIOA INDUSTRIAN

Urte arteko aldakuntza tasa



AFILIAZIOA ZERBITZUETAN

Urte arteko aldakuntza tasa



Maiatzean, enpleguaren hazkundearen buru zerbitzuen sektorea izan zen berriro ere. Honak, afiliazioaren %75 inguru biltzen du, eta urte arteko aurrerapen handiena izan zuenez (%1,6), guztizko hazkundearen zatirik handiena suposatzen du. Industriak bilakaera positiboa eta egonkorra izan zuen (%0,5). Hazkundera ba-

tez ere informazioan eta komunikazioan eta administrazio jardueretan oinarritu zen (8.600 eta 1.900 afiliatu inguruko gehikuntza, hurrenez hurren), baita osasunean eta hezkuntzan ere. Aitzitik, merkataritza izan zen sektorerik ahulena, 8.900 afiliatu inguruko beherakadarekin.

GIZARTE SEGURANTZAN AFILIATUTA DAUDEN LAGUNAK

| | 2025eko maiatza | 2026ko maiatza | Aldakuntza |
|--|------------------|------------------|---------------|
| AFILIAZIOA GUZTIRA | 1.029.149 | 1.042.680 | 13.531 |
| Industria manufakturagileak | 175.178 | 175.749 | 571 |
| Merkataritza | 134.646 | 125.766 | -8.879 |
| Osasun arloko jarduera | 115.451 | 117.312 | 1.861 |
| Hezkuntza | 87.270 | 88.838 | 1.567 |
| Ostalaritza | 73.903 | 74.811 | 907 |
| Administrazio jarduerak | 70.107 | 71.988 | 1.881 |
| Lanbide jarduerak | 65.688 | 66.381 | 693 |
| Eraikuntza | 59.560 | 59.711 | 151 |
| Administrazio publikoa | 52.551 | 53.312 | 761 |
| Garraioa | 47.390 | 48.282 | 892 |
| Informazioa eta komunikazioa | 28.499 | 36.041 | 8.599 |
| Etxeko langileak | 27.761 | 28.731 | 232 |
| Bestelako zerbitzuak | 27.442 | 28.610 | 849 |
| Jarduera artistikoak | 20.300 | 21.176 | 876 |
| Finantza jarduerak | 17.521 | 17.757 | 236 |
| Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza | 12.405 | 12.644 | 238 |
| Ur horniketa | 6.616 | 6.813 | 197 |
| Higiezin jarduerak | 4.464 | 6.201 | 1.737 |
| Energia horniketak | 1.733 | 1.896 | 163 |
| Erauzketa industriak | 566 | 565 | -1 |
| Lurraldez kanpoko erakundeak | 97 | 96 | -1 |

Iturria: Gizarte Segurantza. (*) 2026ko urtarrilean EJSN-2025 berriaren ezarpenak jarduera batzuk birsailkatu ditu eta desoreka sortu du 2025eko eta 2026ko datuen arteko konparazioan.